



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

ATAL HONETAN, GURE NEGOZIO-EREDUAK
ONDO FUNTZIONA DEZAN BEHARREZKOAK
IZANGO DITUGUN AKTIBO NAGUSIAK
DESKRIBATZEN DIRA.

BEHAR DITUGUN ELEMENTU GARRANTZITSUENAK

Funtsezko baliabideak enpresa bati bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetzen diotenak direla kontuan izanda, honela sailkatu daitezke gure enpresaren funtsezko baliabideak:

- **Baliabide fisikoak:**

- Instalazioa: Lanerako lokal bat alokatu dugu bertan gure produktuak ekoiztu ahal izateko.
- Ibilgailuak: Gure produktuak gozoki dendetara eta supermerkatuetara eramateko ibilgailuak beharrezkoak dira.
- Makinak: Gure produktuak sortzeko beharrezko makinak eta materialak.
- Sistema informatikoak: Webgune bat sortuko dugu eta sare sozialetan kontu bat irekiko dugu, gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure produktuak online bidez saltzeko. Horretarako, ordenagailu bat eta mugiko bat behar izango ditugu.
- Salmentarako puntuak: Oso garrantzitsuak dira salmenta puntuak gure proiektua funtziona dezan. Gure kasuan, hiru salmenta puntu aukeratu ditugu: supermerkatuak, gozoki-dendak eta hortz-klinikak.
- Osagaiak: Gure produktuak egiteko behar izango ditugunak.

- **Baliabide intelektualak:** Atal honetan garrantzitsua da gure marka berriaren eta logoaren patentea. Marka berri bat erregistratzeko OEMP bidez egingo dugu, hau da, "Oficina Española de Patentes y Marcas".

- **Giza baliabideak:** Enpresa bateak lan egiten duten pertsonak osatzen dute. Horretarako beharrezkoak dira Andrearen sormena alde batetik, Saiok duen salmentetarako eta antolaketarako abileziak eta Joneren antolatzeko gaitasuna.

- **Finantza-baliabideak:** Gure proiektua finantzatzeko alde batetik jarduera bat egingo dugu hurrekin. Modu honetan, proiektuaren atal bat behintzat ordaindu genezake. Gainera, Osakidetzaren bidezko finantziarioa lortzen saiatuko ginateke, izan ere, beste atal batzuetan aipatu bezala, zerbitzu publikoetan ez zaio garrantzi handiegia ematen ahoko osasunari, beraz, behar duen garrantzia emateko aukera ona eta merkea dela iruditzen zaigu.

Modu honetan ez badugu gure proiektua finantzatzen, prest gaude gure aurrezkinak elkartzera proiektua martxan jarri ahal izateko.

